



LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS

**Gradu Amaierako lana**  
**ARKEOLOGIA ETA GAUR EGUNGO GIZARTEA**

Egilea: Miren Altadill Aguirrezabalaga

Tutorea: Belen Bengoetxea Rementeria

Historiako Gradua, 2020-2021  
Geografía, Historiaurrea eta Arkeologia saila  
Gasteiz

## LABURPENA

GRAL honetan, arkeologia eta gaur egungo gizartearen arteko harremanaren nolakotasuna aztertzen saiatu gara. Gai konplexua eta abstraktua den arren, gizartea eta arkeologiaren arteko harreman aldakorrek aurrera pausuak ematen ari dela aipatzekoa da lan honetan eta hori hobetzeko aurkeztutako ekimen eta mekanismo ezberdinen azterketa aurkeztea helburu daukagu.

Horretarako, Ondarea definitzen saiatu naiz, gutxienez kontzeptuaren hurbilketa bat lortuz eta Ondarea gizartean daukan eragina azpimarratu dut, batez ere, herri baten identitate amankomuna sortzeko orduan. Ondarearen ideiarekin batera, Ondarearen kudeaketa aztertu dugu modu laburrean. Atal honetan, Ondarearen babesak eta kontserbazioa bultzatzen duten legedia aipatu eta arkeologiak dituen problematika ezberdinak aurkeztu ditut. Ondoren, arkeologia eta gizartearen arteko harremanaren garapena aurkeztu dugu, gizarteak arkeologian izandako interesaren areagotzea, batez ere, 1945 urtetik aurrera eman zena, ongizate estatuaren sorrera eta identitateak indartzeko Ondarearen erabilpena areagotu zenean. 1960ko hamarkadan, dibulgazioaren erabilpena zabaldu zen, gizartea parte hartze aktiboa bihurtzea eskatzen zuenean, turismo kulturalaren eraginpean. Hori aztertuta gaur egungo dibulgazioan erabiltzen diren mekanismoetan zentratu naiz, gizartearen arreta helburu daukatena; bisita gidatuak, baliabide didaktiko ezberdinak, pentsa eta sare sozialak besteak beste.

Horrekin batera, mekanismo ezberdinen eraginkortasuna ikusteko Euskal Autonomi Erkidegoko bi museoen analisia egin dut; BIBAT museoa eta Bilboko Arkeologi museoa. Bertan, baliabide didaktiko ezberdinak aurkitu ditut, bisita gidatuak, ikus-entzunezko baliabide asko, Ondarearen testuingurua azaltzeko balio dutenak, eta batez ere, hezkuntzari zuzendutako hitzaldi eta tailer ezberdinak.

Hala ere, museoen egokitzapena gauzatu den arren jendearen artean oraindik Ondarea eta arkeologia kontzeptu urrunak izaten jarraitzen dute, bibliografiaz gain, egindako inkesta baten emaitzek argitzera ematen duen ideia baita. Hori aldatu eta harremana hurbiltzeko egin daitezkeen eta beharrezkoak diren elementu ezberdinak aipatu ditugu lanaren azken zatian, ondorio moduan. Horien artean, hezkuntzaren garrantzia azpimarratzen dugu. Hau da, hezkuntza munduan arkeologia eta Ondarearen garrantzia

azpimarratzea beharrezkoa ikusten dugu, haren babesa eta kontserbazioaren alde egoteko. Halaber, hezkuntzaren bitartez, jendearen jakintza-maila altuagoa izateko aukera egongo zen. Beste problematika bat, dibulgazioan, erakusten den objektuei garrantzi osoa ematea da. Izan ere, arkeologoek Ondarea zabaltzeko ahaleginak egiten dituzte eta askotan testuinguru falta somatzen da. Ez bakarrik Ondarearen inguruan dagoen testuingurua baizik eta arkeologiak jarraitutako metodologiarena ere.

# **AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA</b>	<b>4</b>
<b>2. HELBURUAK</b>	<b>5</b>
<b>3. METODOLOGIA</b>	<b>6</b>
<b>4. HAUSNARKETARAKO KONTZEPTU BATZUK</b>	<b>6</b>
4.1. Zer da Kultura-Ondarea?	7
4.2. Ondarearen kudeaketa	9
4.3. Arkeologia Publikoa eta Arkeologia Komunitarioa	11
<b>5. ARKEOLOGIAREN ETA ONDARE ARKEOLOGIKOAREN DIBULGAZIO BIDEAK</b>	<b>13</b>
5.1. Arkeologia eta gizartearen arteko komunikazioaren bilakera	14
5.1.1. Museoak	15
<b>6. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BI MUSEOEN ANALISIA: BIBAT ETA BILBOKO ARKEOLOGI MUSEOA</b>	<b>17</b>
<b>7. JENDEAREN PERZEPZIOA INKESTEN BITARTEZ</b>	<b>26</b>
<b>8. ONDORIOAK</b>	<b>32</b>
<b>9. BIBLIOGRAFIA</b>	<b>34</b>
<b>10. ERANSKINAK</b>	<b>36</b>

## 1. SARRERA

GRAL honen izenburuak adierazten duen bezala, lan honetan, arkeologia eta gaur egungo gizartearen arteko harremana aztertu dut. Gaia nahiko konplexua da, gaurkotasun handia daukaten kontu asko biltzen dituelako tartean. Adibidez, Ondare kulturalaren edota Ondare arkeologikoaren ideia eta kontzeptua, horren kudeaketaren garrantzia, edota herritarrekiko harremana eta komunikazioa biltzen ditu. Halaber, gai hauek XXI. mendeko arkeologiaren erronka garrantzitsuak direla esan behar da. Azken finean, iragana eta orainaldiaren arteko zubi bat eraikitzeke bidea dira.

Arkeologiak hain zuzen ere, iragana aztertzen du aztarna materialen bitartez. Aztarna horiek gaur egun mantentzen direnez, kudeatu behar diren baliabide bihurtzen dira. Gainera, arkeologiak baliabide publikoekin lan egiten du gehienbat eta ikertzen duen Ondareak ere izaera publikoa daukala ukazina da. Horregatik, dibulgazioa beharrezkoa da eta proiektu arkeologikoaren barnean txertatzea ezinbestekoa da. Hala ere, lanean azaltzen dudana bezala, hau ez da beti horrela izan azken hamarkadetan zentzu horretan aurrerapausu handiak eman direlarik.

GRALean alderdi hauetan sakondu dut eta aspektu hauei loturik agertu diren Arkeologia Publikoa eta Arkeologia Komunitarioa bezalako joera ezberdinak ere aipatu ditut. Hala ere, lanean, arkeologiak gizarteari zuzentzeko erabiltzen dituen komunikazio estrategietan zentratu naiz. Arkeologiaren edo Ondarearen komunikazio edo partekatzea modu ezberdinetan egin daiteke; prentsa, telebista, dibulgaziozko argitalpenak, hitzaldiak, aztarnategi arkeologikoen bisiten bidez, besteak beste.

Lan honetan arkeologia museoetan zentratu naiz. Hain zuzen ere gutxi gora-behera duela hamarkada bat Euskal Autonomia Erkidegoan zabaldu ziren bi arkeologia museoetan. Beraz, Gasteizko Bibat Museoa eta Bilboko Arkeologi Museoa aztertu ditut, bertan komunikazio eraginkorra egiteko erabiltzen dituzten baliabide ezberdinak aztertuz.

Museoek gaur egungo gizarteari iragana aurkezteko erabiltzen dituzten tresna eta baliabideak oso garrantzitsuak dira. Horien bitartez iraganari buruzko ideia zehatz batzuk helarazten dituzte, eta horiekin batera, iragan hori ulertzeko modua ezezik, balio

jakin batzuk ere transmititzen dituzte. Era berean, museoen bitartez, arkeologiaren irudia (jakintzagai bezala) ere helarazten da edo helarazi daiteke, baita arkeologoarena. Gainera, ezin dugu ahaztu musealizazio proiektu orok berekin dakarrela erabakiak hartzea, ideia batzuk eta ideiak transmititzeko moduak lehenestea, eta, azkenean, jendeari aurkezten zaiona aukera horietako bat dela.

Guzti honekin gizarteak arkeologiari buruz daukan pertzepzioa ere aztertu dut, aipatutako gai ezberdinek gizartean eta ikuskera horretan eragin handia daukatelako. Horregatik, lanaren oinarriak finkatu eta gerturatze bat egiteko, galdetegi bat egin dut Historia eta museoekin zerikusirik ez daukaten pertsonen iritzia eta ikuspuntua jakiteko. Balio estatistikorik ez du betetzen baina erantzunak, ikuspuntu kualitatibo batetik, interesgarriak dira, ondoren ikus daitekeen moduan.

## **2. HELBURUAK**

Lan honen helburu nagusia arkeologia eta gaur egungo gizartearen arteko harremana aztertzea da. Horretarako, arkeologiak gizartearekin komunikatzeko erabiltzen dituen mekanismo ezberdinen azterketa burutu dut. Hasteko, kontzeptu eta gai nagusi batzuei buruzko hausnarketa egin dut, ondoren gizartearen premia berriei egokitzeko Arkeologiak gaur egungo gizartearekin komunikatzeko erabilitako dibulgazio baliabide ezberdinetan zentratu naizelarik (batez ere museoetan),

Analisirako espazioa Euskal Autonomia Erkidegoa izan da. Hala ere, lanaren ezaugarri eta mugak direla eta, ezin izan ditut esparru honetako hedapen proiektu guztiak ikertu, eta bertan dauden Museo Arkeologikoetan zentratu naiz. Bertako dibulgazio mekanismo eta tresna ezberdinak analizatu ditut, haien eraginkortasuna modu kritiko batean aztertzeke helburuarekin.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den jendeak arkeologiarekiko eta museoekiko pertzepziora ere hurbilketa bat egitea izan da beste helburu bat, lehen esandako inkestarekin lortu dudana. Azken finean, jendeak dituen ideiak ezagutzea interesgarria da hurbilketa hori gauzatzeko (arkeologia – gizartea).

### **3. METODOLOGIA**

Lan hau burutzeko erabilitako metodologiari dagokionez, hasteko, egindako kontsulta bibliografikoa aipatu behar da. Izan ere, azken urte hauetan gai honekin lotutako lan ezberdin eta interesgarriak argitaratu dira (Querol, 2010; Almansa, 2011, 2018, Ruiz Zapatero, 2016; González Ruibal eta Ayán Vila, 2018; Delgado Anés, 2019). Bibliografía izan da ezinbesteko oinarria kontzeptuak argitzeko eta azken urteetako ibilbidearen berri izateko. Lan hau oinarri teoriko batean oinarrituta dago, euskarri eta autore ezberdinak erabili direlarik osatzeko.

Bestalde, aurreko atalean aipatu dudan museo arkeologikoen analisia egiteko, bisitak egin ditut bai Gasteizko Bibat Museora eta baita Bilboko Arkeologi Museora ere. Horretarako, fitxa tekniko bat erabili dut museo bakoitzak dituen ezaugarriak eta baliabide didaktikoak modu kritiko batean baloratzeko. Bisita horietan argazkiak ere atera ditut lanean zehar ikusgarri daudelarik.

Azkenik, lehen aipatutako gizartearen pertzepzioaren berri izateko, inkesta bat burutu dut lanaren oinarriak finkatu eta galdetuen artean arkeologia eta gizartearen harremana nolakoa den ikusteko, haien interesa, jakintza- maila, lehentasuna eta arkeologiari buruz daukaten ikuspegia jasotzeko. Honetarako, galdetegia diseinatzeaz gain, pertsona-profil ezberdinak aukeratu ditut (adin ezberdinekoak, esate baterako), eta ondoren, aukeratutako pertsonen erantzunak jasotzeko elkarrizketa erabili dut. Hurrengo pausua erantzunen sailkatze eta zenbaketa izan da, eta lortutako emaitzak modu bisual eta argiago batean azaltzeko, grafikoak erabili ditut.

### **4. HAUSNARKETARAKO KONTZEPTU BATZUK**

Lan honek gizartea eta arkeologiaren arteko harramana aztertzea du helburu. Harreman hori ondare arkeologikoaren bitartez sortzen da, ondare hori erakusteko moduan, hain zuzen ere. Horregatik, atal honetan hausnartu beharreko kontzeptu batzuk aurkezten ditut, haien definizioa, bilakaeraren berri eman eta gaur egun daukaten eragina azalduz. Horien artean; Ondare kulturala, Ondarearen kudeaketa, Arkeologia Publikoa eta Arkeologia Komunitarioa aipatu ditugu.

#### 4.1. Zer da Kultura-Ondarea?

Kontuan hartzen badugu gizarteari aurkeztu eta erakusten zaiona kultur-Ondarea, edo horren barruan dagoen ondare arkeologikoa dela, interesgarria iruditu zait kontzeptu hauen inguruan hausnartzea eta izan duten garapena eta ibilbidearen berri ematea.

Ondarea definitzea konplexua da, izaera aldakorra izateaz gain, kontzeptu anitza eta indibidualki eraiki daitekeena delako, aldi berean. Ondareak balore eta sentimendu amankomun zein indibidualak biltzen ditu (González Ruibal eta Ayán Vila, 2018: 439). Horregatik, Ondarearen izaera indibiduala dela aipatzen dut. Horrek, aldi berean zailtasunak dakartza Ondarea definitzeko orduan<sup>1</sup>.

Egia da baita, Ondarearen kontzeptua garai edo momentu batean gizartean indarrean dauden baloreen arabera eraikitzen dela. Adibidez, Euskal Herriaren kasuan, XIX. mendeko pertsonen arabera, baserriek edo errotek ez zuten ondare izateko haien irizpideekin bat egiten. Egun, ordea, baserriak eta errota ondare kulturala kontsideratzen dira eta haien babesa eta kontserbazioa sustatzen da. Gainera, baserriak, hain zuzen, euskal identitatearekin lotzen dira (Quiros, 2018: 23).

Beraz, Kultura-Ondarea iraganetik datorren elementua izango litzateke, irizpide ezberdinen arabera, gaur egun baloratzen duguna. M. Querol-en hitzetan: “Historian zehar gizabanako edo talde batek sortu zituen ondasunen multzoa da, egun arte kontserbatu eta babestu nahi direnak” (Querol, 2010: 24)<sup>2</sup>.

Definizio honen arabera, kontzeptu aldakorra da, garaialdien arabera ezberdina izango dena, gizartearen ikuskerari moldatuz. Horregatik, interesgarria izan daiteke atzerantza begiratzea horren garapenaren ildo nagusiak ikusteko.

Ondareari buruzko lehen hausnarketa errenazimenduan burutu zen. Garai horretan Ondareak interesa piztu zuen, baina ondasun pribatua zen eta elite intelektualen esku

---

<sup>1</sup>Adibide on bat izan daiteke azken urteetan garatu den Gerra Zibilaren inguruko arkeologia. Izan ere, egoera traumatikoetan edo horien ostean, ohikoagoa da ondarearen beharra izatea memoria kolektiboa sortzeko (Quiros, 2018).

<sup>2</sup>Espainiako kasuan, “Ondare Kulturala” edo “Ondare historikoa” erabiltzen dira. Administrazioan eta ondarearen kudeaketan, bi terminoak erabiltzen diren arren, autonomia erkidego ezberdinek izendapen bat edo bestea aukeratu dute, bakoitzak irizpide ezberdinak jarraituz. Euskal Autonomi Erkidegoaren kasuan, izendapen nagusi gisa ondare kulturala erabiltzen da.



zegoen. Frantziar iraultzaren ostean, Ondarearen ikuskera guztiz aldatu egin, bere izaera publikoa aitortuz. Honetaz gain, haren kontserbazioari garrantzia handia eman zitzaion eta etorkizuneko belaunaldientzako beharrezkoa zela pentsatzen hasi zen (Delgado Anés, 2017: 184). Ideia honekin Ondarearen kontserbazioaren garrantzia zabaltzen hasi zen.

XIX. mendean, ikuskera sozialagoa hartu zuen; alde batetik, garai honetan identitate eta nazio berriak sortu ziren eta nazio horien nortasuna justifikatu eta indartzeko iraganeko elementuak erabili ziren (Quiros, 2013: 9). Beste alde batetik, Kultura-Ondarea kudeatzeaz arduratzen diren erakundeek Ondarea eta gizartearen arteko harremanean hurbilketa gauzatzeko mekanismoak garatzen hasi ziren. Gainera, XX. mendetik aurrera, Ondareak testuingurua izan behar zuenaren ideia nabarmentzen hasi zen Ondarea definitzeko orduan (Querol, 2010: 20).

Datozen lerroetan, planteatu dudan Ondarearen definizioan agertzen den elementu bat azpimarratu nahiko nuke: Ondarearen rola iragana eta gaur egunaren arteko zubi bezala<sup>3</sup>. Azken finean, iraganeko elementuz osatuta dago, baina gaur egungo baloreen arabera kontuan hartuko da, horrez gain, modu baten edo beste baten, gaur eguna “eraikitzen” ere laguntzen du eta gainera Ondare hori gaur egunean kudeatzen da. Michel Shanks-en hitzetan: *“Aquello que el presente valora del pasado y el valor del pasado reside en su contribución y sentido contemporáneo de identidad y su riqueza”* (Quiros, 2018: 23-tik hartuta).

Lanean aztertuko dugun elementua ondare arkeologikoa da, hain zuzen. Hau, azaldutako ondare kulturalaren barruan agertzen da eta arkeologia disziplina zientifikoak ikertzen duen Ondarea da (Querol, 2010: 29). Ondare arkeologikoa arrasto materialez osatzen da eta guztiak testuinguru batekin erlazionatzen dira. Ondarea ikertzeko, metodologia garrantzi handikoa da, Ondarea material hauskor, errekueraezin eta bereziaz osatzen delako. Horregatik Ondarea suntsitzean, Ondarea birsortzerik ez dagoenez, kontserbatu eta babestu beharra dago. Elementu aldakorra eta konplexua

---

<sup>3</sup>*“La arqueología trata con una realidad multidimensional: restos materiales de un pasado que son también bienes patrimoniales que hay que gestionar en el presente”* (González Ruibal eta Ayán Vila, 2018: 439).

denez, gehienetan beharrezkoa da ondare horren balioa nabarmentzea gizarteak haren garrantzia uler dezan.

#### **4. 2. Ondarearen kudeaketa**

Azaldu berri dut Ondarearen definizioa eta kontzeptu honek gizartean daukan eragina. Atal honetan horren islada ikusiko dugu Ondarearen kudeaketa aztertzerakoan. Ondarearen kudeaketaren definizioa ematen saiatu naiz, kudeaketa organoek dauzkaten konpetentziak azalduz eta horrek arkeologia eta Ondarean daukan eragina aztertuz. Horrela, kudeaketaren helburuak eta betebeharrak aipatu ditut eta hori betearazteko tresna eraginkorrenaz mintzatuko naiz, legeaz, hain zuzen ere, azken honen ezaugarri esanguratsuenak aipatuz.

Ondarearen kudeaketaren helburu nagusiak Ondarearen babesa, kontserbazioa eta hedapena dira. Ondarearen kudeaketaz arduratzen diren organo ezberdinak daude. Ondarearen kudeatzeaille nagusiak erakunde publikoak dira (estatalak zein autonomikoak) eta haien tresna nagusia legedia da.

Legediaren barruan lege ezberdinak argitaratu dira, nazioarteko legeak, lege estatalak edota autonomikoak, hain zuzen ere. Nazioarteko legeak edozein legedi estatalaren gainetik daude eta irizpide orokorrak emateko gaitasuna daukate, Ondarearen sailkapena esaterako. Espainiar estatuko Ondarearen kudeaketari buruzko argitaratu zen azken legea, “Ley de Patrimonio Histórico Español<sup>4</sup>” delakoa 1985. urtekoa da, 1933koa ordezkatur.

Lege honen ezaugarri nagusienetariko bat da erkidego bakoitzari bere lurraldeko Ondarea kudeatzeko eskubide eta botere guztia aitortzen diola. Horregatik, lege honekin batera, hurrengo hamarkadatan, autonomia erkidegoek beraien ondare kulturala babesteko legeak argitaratzen hasi ziren.

Euskal Autonomia Erkidegoko legediaren ezaugarri esanguratsu batzuk aipatzea komenigarria iruditu zait eremu honetan kokatzen diren bi museoen analisia burutu dudalako. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, azken legea 2019an argitaratu zen eta aurrekoarekin alderatuz (1990) berrikuntzak dakartza. Horien artean,

---

<sup>4</sup> Ley 16/1985. BOE-A-1985-12534.

industria-Ondarea izendatu, ondare inmateriala esplizituki aipatu eta izaera kolektiboa daukan Ondarea aitortu egiten du. Azken honek, zonalde arkeologiko batean aurkitzen den Ondarea kontserbatzen laguntzen du. Azkenik, komenigarria da aipatzea legedia berriak dibulgazioari garrantzia ematen diola (Azpeitia Santander, 2020: 2).

Lege hauen harira, arkeologia prebentiboa sortu da azken hamarkadetan. Izan ere, askotan, oso zaila izan daiteke gaur egungo interes ekonomikoak Ondarearen kudeaketarekin konpatibilizatzea, eta arkeologia prebentiboaren helburua obra suntsitzaileek ondare arkologikoan izan dezaketen ondorio negatiboak ekidin edo minimizatzea da. Horretarako, kasurik gehienetan, horrelako obra suntsitzaileak egoten direnean, obra horiek aztarnategi arkeologiko bati eragin diezaioketela susmatzen bada, aldez aurretik, interbentzio arkeologikoak egiten dira, bertan egon daitezkeen arrastoak dokumentatzeko eta aztarnategiaren interes arkeologikoa baloratzeko. Jakina, honelako kasuetan, urbanismo eta ingurumen sailekin lankidetzan aritzearen beharra azpimarratzekoa da, horrela ondare arkeologikoa babestea errazagoa izango litzatekelako.

Dena den, kasu askotan, oso zaila izan da hau praktikan jartzea, eta aztarnategi asko suntsitu egin dira behar bezalako azterketak eta ikerketak egin gabe. Kritikak ere sortu dira. Adibide bezala, Jaime Almansaren eta Beatriz del Mazoren hitzak erabiliko ditut: *“La situación se agrava cuando la gestión del suelo convierte a la arqueología en “otro trámite” totalmente capitalizado y la propia investigación se reduce a un inventario”* (Almansa Sanchez eta Del Mazo, 2010: 1).

Guzti honen aurrean, M.A. Querol-ek Arkeologia Prebentiboa ulertzeko beste modu bat proposatzen du. Autore honentzat, Arkeologia Prebentiboaren helburua ezin da izan suntsitu behar diren aztarna arkeologikoak dokumentatzea eta gero suntsitzea, aztarna eta aztarnategi horiek kontserbatzea baizik. Ikus daitekeenez, kasu honetan, kontserbazioa aldarrikatzen da interbentzio edo indusketa/suntsiketaren aurrean (Querol, 2010:214-225). Jakina, planteamendu berri honek Ondarearen Kudeaketaren mekanismoetan ere aldaketak suposatuko lituzke<sup>5</sup>.

---

<sup>5</sup>M.A. Querol-ek modu sintetiko eta argian azaltzen ditu Kudeaketa egiteko moduan beharrezkoak izango liratekeen aldaketa horiek (Querol, 2010: 214-225).

Oro har, arkeologia prebentiboaren praktika aurrera eramatea zaila suertatzen da. Hala ere, badaude hainbat adibide ugari non gizartea Ondarearen suntsiketaz hausnartzera eramán duen eta horietako batzuk komunikabideetan ohiartzun handia izan dute. Hala nola, Cordobako Cercadillan edota Madrilgo Plaza de Orienteko gertakarietan ikus daiteke<sup>6</sup>, bere garaian oso eztabaidatuak izan zirenak.

### **4.3. Arkeologia Publikoa eta Arkeologia Komunitarioa**

Arkeologia publikoa edo arkeologia komunitarioa biltzen duen atala lan honetan txertatzea komenigarria dela iruditu zaigu. Izan ere, lanean, publikoa eta arkeologiaren arteko harremana aztertzen da. Honen inguruan, hausnarketa ezberdinak egon dira. Batzuk, arkeologia eta gizartearen arteko komunikazioa ea modu egokian egiten den hausnartu dute. Beste batzuk, dibulgazio mekanismoen eraginkortasuna, erabilera egokia edota mekanismo horien egunerokotasunaren inguruan hausnartu dute. Arkeologia Publikoa eta Komunitarioa azaldu ostean, Espainiako kasuan zentratu naiz, batez ere, Jaime Almansa autorean oinarrituz.

Hausnarketa horren barruan, Arkeologia Publikoa (*Public Archeology*) eta Arkeologia Komunitarioa aztertu ditut, horiek gauzatzen baitute arkeologia eta gizartearen hurbilketa modu praktikoago batean. Lan ezberdinak irakurri ditudan arren (Jaime Almansa, 2012, 2018; Ruiz Zapatero, 2012; Delgado Anés, 2017; González Ruibal eta Ayán Vila, 2018) ez dago argi oraindik zer den arkeologia publikoa eta zer arkeologia komunitarioa, bi kontzeptu hauen mugak ezartzea konplexua baita.

Arkeologia Publikoa Estatu Batuetan zabaldu zen arkeologiaren barnean dagoen joera berri bat da (gure artean, behintzat). Joera honek, arkeologia eta gaur eguneko gizartearen arteko harreman hurbila sortzeko helburua dauka harreman horren hausnarketa eta arkeologiaren ikuspuntu kritikoaren sorrerarekin. Hau da, gaur egungo gizartea nolabait arkeologiaren barruan integratzen duen joera da (Almansa, 2018). Kontzeptu honen izendatzea 1972. urtean eman zen, Charles R. McGimseyk, Estatu Batuetan Public Archeology liburua argitaratu ostean (Almansa Sanchez, 2011: 88).

---

<sup>6</sup><https://elpais.com/cultura/2021-06-02/cordoba-gano-una-estacion-de-ave-y-perdio-el-mayor-palacio-del-imperio-romano.html>  
<https://elpais.com/babelia/2021-01-26/yacimientos-expolios-robos-y-otras-anecdotas-de-la-arqueologia-espanola.html?rel=mas>

Liburu honek gizarteak bere iraganaren berri izateko eskubidea aldarrikatzen du, arkeologia eta Ondarearen kudeaketaren arduradun, arkeologoak eta hiritarrak bihurtzen dituelarik, partehartze publikoa lehen aldiz sustatzen delarik (González Ruibal, eta Ayán Vila, 2018: 417). Arkeologia publikoak ikuspegi teorikoarekin batera ikuspuntu praktiko bat bilatu nahi du, arkeologiaren eta emaitzen izaera sentikorrago baten bidez zuzenean tokian tokiko gizarte taldeekin harremana sortuz (González Ruibal eta Ayán Vila, 2018: 419).

Hala ere, Arkeologia Publikoa Estatu Batuetan kokatzen dugun arren, badauka bere atal ingelesa. Britania Handian, disziplina arkeologiko honek arkeologiak aurrera eramaten dituen ekintzetan eragin handia dauka, batez ere, emaitzen hedapen eta Ondarearen kudeaketa lanetan.

Espainiako kasua aztertuta, Arkeologia Publikoaren inguruko lanak argitaratzen eta ekimen ezberdinak aurrera ateratzen ari direla azpimarratu daiteke, oraindik joera orokortua ez den arren. Alde batetik, lan bibliografikoak daude, Jaime Almansa autorearen lanak nabarmenduz, Espainiako arkeologia eta gizartearen arteko harremana ikertzen dutenak. Horietako batzuetan, Arkeologia Publikoaren korrontea azaldu eta Espainian daukan influentzia garatzen dira (Almansa Sanchez, 2011).

Beste alde batetik, Espainian guda zibilaren garaiko (1936-1939) Ondarearekin ekimen gehienak aurrera eraman direla azpimarratu beharra dago. Hau horrela da Espainiako guda zibila gizartearentzat garai traumatikoa izan zelako eta gizarteak justizia eta erreparazioa lortzeko Kultura-Ondarean babesten delako (González Ruibal eta Ayán Vila, 2018: 425).

Espainiaren kasua aztertzen jarraituz gero, Arkeologia Komunitarioaren ekimenak agertzen dira ere. Arkeologia Komunitarioa, arkeologiaren korronte bat da, gizartearen parte hartzea sustatzen duena modu aktibo batean. Kasu batzuetan, parte hartzaileei indusketa prozesu osoan zehar haien iritzia eta erabakiak hartzeko aukera ematen zaizalarik.

Jaime Almansa eta Beatriz del Mazo autoreek aztertutako Espainiako arkeologia komunitarioaren adibide batzuk aipatuko ditut. Adibide gisa, Madrilgo Colmenar Viejo auzoa aurkeztuko dut, *community archaeology británica* ereduia sustatu zelarik bertan. Eredu honetan arkeologia komunitarioaren printzipioak jarraitzen dira non hartzaileak eta publikoa indusketaren parte hartzaile moduan kokatzen diren eta haiekin informazio trukaketa oso hurbila burutzen den (Almansa Sanchez eta Del Mazo, 2010: 3).

Jaime Almansak Arkeologia Publikoaren etorkizuneko erronkak aipatzen ditu, batez ere, jendearen heziketa eta arkeologia hobetzeko hausnarketa kritikoa egiteko beharra azpimarratuz. Lehenik eta behin, hausnarketa kritikoa eta arkeologiaren inguruko prespektiba kritikoa garatzen jarraitzea planteatzen du, betiere, testuinguru sozial baten barruan. Ondoren, arkeologoaren arteko lankidetzak aipatzen du, funtzesko erronka gisa. Honi esker, arkeologia eta Ondarearen babesa eta kontserbaziorako erraztasunak ziurtatu ahal izango dira (Almansa Sanchez, 2018).

## **5. ARKEOLOGIAREN ETA ONDARE ARKEOLOGIKOAREN DIBULGAZIO BIDEAK**

Nire analisiaren oinarria arkeologiaren eta ondare arkeologikoaren dibulgazioa denez, atal honetan, dibulgazioaren metodo nagusien bilakaera aurkeztu dut, gaur egun arte erabili diren mekanismoak aipatuz. Azkenik, mekanismo horien artean museoaren egoeran eta egokitzapenean zentratu naiz. Izan ere, lanaren bigarren zatian museoetan dauden dibulgazio mekanismoen analisia egin dudanez, komenigarria iruditu zait modu orokorrean, egondako aldaketak aipatzea. Arkeologiak komunikatzeko erabiltzen dituen mekanismoen aldakortasuna ulertu behar da eta azken hamarkadetan dibulgazioa garatzeko emandako pausuak aztertu behar dira.

Dibulgaziorako erabiltzen dituen estrategien bitartez, Arkeologiak publikoak ezagutza garatzea eta publiko hori hezitzea bilatzen du. Horretaz gain, lortutako ezagutza horiek iragana, oraina eta etorkizuna ulertzeko baliabide bihurtzea bilatzen du ere, haien arteko zubi bat eraikiz.

### **5.1. Arkeologia eta gizartearen arteko komunikazioaren bilakera**

Gizartea eta arkeologiaren arteko harremana ulertzeko gizartean arkeologiaren interes-mailaren garapena azaldu behar da. Horregatik, atal honetan, XX. mendean, gizarteak arkeologiarengan interesa areagotzearen arrazoi batzuk aipatu beharra dago. Behin interesa bereganatuta, arkeologiak gizartearekin komunikazioa hobetzeko erabiltzen hasi zen mekanismoak azalduko ditut.

XX. mendearen erdialdean, gizartean arkeologia eta Ondarearenganako interesa hazi zen arrazoi ezberdinak bultzatuta. Arrazoi horien artean, ongizate estatuaren sorrera eta mikro-historiaren zabaltzea aipatuko ditut. Alde batetik, II. Mundu Gudaren amaieran, ongizate estatuaren sorrerak Ondarearen gaineko interesa handitzea eragin zuen, nazionalismo eta identitateen indartzea eman baizen. Ondareak izaera publikoa hartu zuen eta sortu ziren identitateak indartzeko erabili zen. Beste alde batetik, mikrohistoria eta historia kulturala bezalako joerak zabaltzea gizartean eragina izan zuen (González Ruibal eta Ayán Vila, 2018: 419). Izan ere, joera hauek, komunitatean oinarritzen dira eta iraganeko gizabanakoen egunerokotasuna aztertzen dute.

Beraz, hurrengo bi hamarkadetan, arkeologia eta gizartearen arteko harremana komunitate lokaletan zentratu zen, arkeologia eta gizartearen harremana estuagoa bihurtuz (González Ruibal eta Ayán Vila, 2018: 417-418). Gainera, gizarteko sektore batzuek jakin-minaz gain, parte-hartze aktiboa aldarrikatu eta kulturarako sarbidea guztientzako izateko eskakizuna egin zuten. XX. mendean, gizartearen artean Ondarea eta arkeologiaren interes-maila igo zenez, XX. mendearen erdialdean, arkeologiak dibulgazio mekanismoak bere diskurtsoa osatu eta hedatzeko erabiltzen hasi zen, gizartearekin komunikazioa errazteko helburuarekin.

Dibulgazio mekanismo horiek denboran aldakorrak izan dira, garatu eta garaiaren arabera egokitzen joan direlako. Dibulgazioa gizarte osoari (haur zein helduei) arkeologia eta arkeologiaren emaitzak zabaltzeko erabiltzen den mekanismoa da. Hori lortzeko arkeologiaren diskurtsoa erraztu egiten da, hizkuntza ulergarri bat erabiliz, material jakintza-arrunta daukanen artean zabaltzea bilatzen baita (Delgado Anés, 2017: 93).

Beraz, dibulgazioak gizartearen heziketa eta ezagutza bultzatzen ditu. Dibulgazioa, komunitateetan eragina handia daukan komunikazio mekanismoa da. Izan ere, arkeologiak dibulgazioa erabiliz, adin gazteko zein helduen artean hainbat ekintza burutzen ditu, haien iragana eta arbasoen ondasunei balore bat eman diezaioten.

Orokorrean, XX. mendearen erdialdean, emaitza arkeologikoen hedapena zabaltzeko dibulgazioa erabiltzea orokortua zegoen. Espainiaren kasuan, ordea, 1960ko hamarkadan orokortzen hasi zen (González Ruibal eta Ayán Vila, 2018: 427) eta 1990ko hamarkadan, dibulgazioaren teknika berriak arkeologian integratzen hasi ziren, internetaren sorrerak bultzatuta (Garrido-Castellano, 2010: 43).

Gaur egun dibulgaziorako erabiltzen diren mekanismo nagusiak, aztarnategien bisita gidatuak, hitzaldiak, arkeologia integratzen duten liburuak<sup>7</sup> (ume, gazte eta helduentzat), prentsan idatzitako albiste edo erreportaiak (Almansa Sanchez eta Del Mazo, 2011), telebista saioak, irratiko programak eta museoak dira (Delgado Anés, 2017). Lacalle autorearen aburuz, gaur egun turismo kulturala arkeologiak erabiltzen duen dibulgaziorako mekanismo garrantzitsuenetarikoa izaten jarraitzen du (Lacalle, 2010: 32).

Interneten erreztasunekin lotuta, gaur egun arkeologo talde ezberdinek bere ikerketa eguneratuak aurkezteko eta haien proiektua zabaltzeko orduan, sare sozialei ematen dieten garrantzia aipatzea interesgarria iruditu zait. Sare sozialen artean; *facebook* eta *twitter* edota interneten sortzen diren blogak<sup>8</sup> nagusitzen dira.

### **5.1.1. Museoak**

Arkeologiak dibulgaziorako erabili eta erabiltzen dituen mekanismo guztiak aztertzeke zabaltasunik ez daukadanez museoetan zentratu naiz. Muuseoa dibulgazioa burutzeko elementu eraginkorrenetakoa kontsideratu dezakegu. Gizartearekin harreman gertuena sortzen duen baliabidea da, hain zuzen ere, gizarteak eta arkeologiak eremu amankomuna partekatzen dutelako (Delgado Anés, 2017). Querol autoreak dioen

---

<sup>7</sup> Ruiz Zapaterok komikien garrantzia azpimarratzen du.

<sup>8</sup> Adibidez, <https://arkeogazte.org/> eta facebook-eko linka; <https://www.facebook.com/Arkeogazte>



bezala, museoen helburu nagusia publikoarekin zuzenean komunikatzea da (Querol, 2010: 329).

Arkeologia museoak sailkatzeko irizpide ezberdinak erabil daitezke. Hauetariko bat landu edo erakusten duten esparru geografikoaren arabera da. Honen arabera, museo nazionalak, lurraldekoak edo tokikoak egon daitezke. Bestalde, beraietan ikus daitezkeen museologia eta museografiaren arabera, M.A. Querol-en arabera, bi joera nagusi nabarmentzen dira, tradizionala, objektuen erakusketan oinarritzen dena, eta soziala, informazioaren transmisioan fokalizatzen dena gehienbat (Querol, 2010: 327-349). Azken hamarkadetan, joera soziala museologian garrantzia hartzen joan da. Honi esker, dibulgazio mekanismo ezberdinak txertatuz museo interaktiboak lortu dira (Lacalle, 2013).

Interaktibotasun hori lortzeko museoak didaktikoki egokitu behar izan dira, museo eredu tradizionala gaur egungo gizartera egokituz (Axpe eta Muñoz, 2006; Querol, 2010; Delgado Anés, 2017; Ruiz Zapatero, 2012). Horregatik, publiko osora edo publiko espezifikoko bati zuzendutako hitzaldi, tailer partehartzaileak, bisita gidatuak eta lehiaketa ezberdinak antolatzen hasi dira, besteak beste. Horrekin batera, komunikaziorako teknologia berriak integratu dituzte museoetan; pantaila, eszenografia, erreportai eta gertakarien berritzea erakusten duten ikus-entzunezkoak esaterako (Lacalle, 2013).

Museo mota hauek, gizartearekin gertutasuna lortzeko eta Ondarea testuinguruan txertatzeko erraztasunak dituzte eta bisitarien parte hartze elkar eraginkorra sustatzen dute, museo tradizionalek ez bezala. Museoan teknika berri horiek gauzatzeko pedagogiaren beharra salatzen du Ballart Hernández autoreak, bisitarien heziketa prozesua ondo bete dadin (Ballart Hernandez, 111-112).

Museoen izaera aldaketa honen adibide argiena 1884. urtean sortu zen Museo Nacional de Arqueología (MAN)<sup>9</sup> daukagu, eredu kontserbadoretik eredu didaktikora aldatu dena 2008-2014 urteetan burutako erreformen bitartez. Halaber, museoaren izaera aldatu zen

---

<sup>9</sup><http://www.man.es/man/home.html>

lehen aipatutako berrikuntza didaktikoak integratuz, erakusketa objektuak gutxituz eta barne-antolamendu berria ezarriz. Museoak berak erakusten duen programazioa aztertuta bisita-tailer eredu jarraitzen duten ekintzak ugariak direla esan daiteke, familia, haur, gazte eta helduei zuzentzen zaien bisita gidatu partehartzaile bezala definitzen direnak.

Dibulgazioaren areagotze honen ondorioz, museo zaharkituak egokitzeaz gain, museo mota ezberdinak ugaritzen joan dira. Alde batetik, museo “*in situ*” edo parke arkeologikoaren terminoa<sup>10</sup> geroz eta ugariagoa bihurtu da (Lacalle, 2013; Querol, 2010). Hau da, eremu arkeologikoaren musealizazio prozesua eman da eta gune arkeologikoa bisitatzeko aukera dago; bertan egindako tailer hezigarriak, bisita gidatuak eta parte hartze aktiboa sustatzen duten ekintza ezberdinekin osatuz. Honek gizartearen eskari handia dauka (Lacalle, 2013). Beste museo mota ugari bat museo territorialak dira, hurrengo atalean aztertuko ditugunak. (Delgado Anés, 2017: 84; Garrido Castellano, 2010).

## **6. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BI MUSEOEN ANALISIA: BIBAT ETA BILBOKO ARKEOLOGI MUSEOA**

Atal honetan, dibulgazio mekanismo ezberdinak aztertuko ditut Euskal Autonomia Erkidegoko bi museoetara bisita eginez eta ikuspegi kritiko batekin aztertuz<sup>11</sup>. Bertan, baliabide didaktikoen erabilpena egokia den edo ez eta jendearengana benetan iristen diren analizatzen saiatu naiz. Horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko bi museo bisitatu ditut modu kritiko batean haien analisisa egiteko. Bata, BIBAT museoa da, Arabako museo arkeologikoa, bisita martxoaren 22an burutu nuen. Bestea, Bilboko Arkeologi Museoa da, bisita maiatzaren 12ean egin nuen.

Bi lurralde-museo hauek 2009an zabaldu ziren eta territorialak diren heinean bakoitza bere erkidegoaren historian zentratzen da. Hau da, Arabako museoak Arabako garapen

---

<sup>10</sup> Parke arkeologikoa interes handiko zonalde arkeologikoa izendatua izan den aztarnategi arkeologikoa da, bere interes zientifiko, historikoa eta hezigarriagatik. Zonalde hauen kontserbazio egoera oso ona da eta horregatik publikora zabaltzeko prestatuak daude. Parke arkeologikoa bihurtzearen arrazoiak hauekin lortzen den errentagarritasun ekonomikoa eta gizarteari eskeini diezaioken hezkuntza-maila altua dira (Querol, 2010).

<sup>11</sup> Ikusi 1. eranskina.

historikoa erakustea du helburu eta erakusketa objektuak Arabako aztarnategietatik atera dituzte. Bilboko kasuan berdina gertatzen da, Bizkaiko historian zentratzen delako eta objektuak Bizkaiko indusketa ezberdinetatik lortu direlako. Hala ere, haien artean desberdintasun handiak daude. Izan ere, biek baliabide didaktikoak integratu dituzte baina eraginkortasun eta baliabide mota ezberdinak dituzte.

Izaera lokalagoa daukatenez, jendearen interesa lortzea errazagoa bihurtzen da, komunitatearen historia azaltzeko helburua daukalako museoak eta jendeak haren indentitatea, historia eta iragana ezagutzeko interes handiagoa erakusten duelako, inkesta osagarrian ikus daitekeen moduan (hurrengo atalean azalduko dira).

Bi museoek kronologiari dagokionez, BIBAT museoan Historiaurrea, Brontze Aroa, Erromatar garaia eta Erdi Aroa lantzen dira. Euskal Museoan ordea, Aro Berria lantzeko eremuaz gain, Kultura-Ondarearen kudeaketari buruzko atal bat dago. Bi museoek lanean zehar aipatutako baliabide didaktiko ezberdinak integratu dituzte, museoak gizartearen jakintza mailara egokitzeko. Horien artean, bi museoek bisita gidatua egiteko aukera ematen dute, ume, gazte, eskola eta jende helduarentzat. Gainera, bisita gidatuak zure mugikorra erabiliz egin ditzazkezu, QR kodea eskaneatua bakoitzak bere erritmorara egin dezan. Horrela, bisitari bakoitzak bisita bere lehentasunen arabera egin dezake eta interesa daukan horretan gehiago sakontzeko aukera dauka.

BIBAT museoan pieza edo erakusketan erakusten diren objektuei garrantzia osoa ematen zaiola antzeman dut. Hau da, pieza ikusgarriak daude, modu egokian antolatuta; bai kronologikoki eta baita garaiaren barruan atal ezberdinetan antolatuak daudelako. Hau da, garai bakoitza lantzeko atal ezberdinak banatzen dira; tresneria, armagintza, hileta-errituak eta merkataritza-elementuak, besteak beste. Erakusketa piezekin batera, informazioa eskaintzen duten panelak ugariak dira. Orokorrean, garai baten hasieran kokatzen dira eta garaiaren laburpen moduko bat ematen dute. Hala ere, jakintza maila arrunta daukaten jendearentzako erakusten dituzten objektuak ondo ulertzeko informazio eskasa dagoela esango nuke.

Museoan zehar, herrixka ezberdinen berreraikitzea egiten dute maketen bitartez. Hori oso erakargarria dela uste dut gizartearen arreta erraz bereganatu dezakeelako. Hala eta guztiz ere, gaur egungo herriaren maketa ondoan txertatzea komenigarria dela uste dut.

Horrela, aldaketak ikusi eta maketen arteko konparaketak egitea errazagoa delako. Ibilbidean zehar, baliabide didaktikoak daude. Bitrinen artean gertakariak berritzeko ikus-entzunezko panel ezberdinak daude eta horiekin ikusita hobeto ulertzeko aukera dago. Hala ere, pantaila horietan tresneria egiteko prozedura edota herrixka baten sorrera agertzen dira. Gainera, panel batzuk ez daude erabilgarri.



1.Figura: BIBAT museoko ikus-entzun didaktikoak burdina lantzeko teknika ezberdinak azaltzen dituena.  
Iturria: Nik ateratako argazkia.

Honetaz gain, museoan arkeologia disziplina eta metodologiaren inguruko oinarrizko informazioa agertzen da. Alde batetik, indusketa arkeologiko baten berreraikitze bat dago.




2. Figura: Arkeologia indusketa bat irudikatzen da. Iturria: Nik ateratako argazkia

Bestetik, erakusketako pieza ezberdinak aztarnategian aurkitu ziren bezala irudikatzen dira, hilobiratutako gorpuaren kasuan bezala. Adibide honetan, gorpuarekin batera agertu zen hatua ere badago eta goiko panelean zenbatzen eta izendatzen dira.



3. Figura: Historiaurreko hildako bat irudikatzen da aurkitutako testuinguruan berreraikita. Iturria: Nik ateratako argazkia.


Azkenik, estratigrafiari buruzko panel informatiboa agertzen da. Horren bitartez, arkeologian oinarritzkoa den kontzeptuaren azalpena eman nahi da. Panelean, modu labur eta sintetikoan estatigrafiaren sorrera azaltzen da eta zibilizazio edo garaiak desberdintzeko Karbono 14aren beharra aipatzen du. Nire ustez, estatigrafiari eskeinitako panel hau ez da nahikoa jakintza-maila altua ez daukan pertsona batentzat eta ikus-entzun edo modu birtualean azaltzea egokiagoa litzateekela uste dut. Gainera, adibidez, arkitekturaren estratigrafiari buruz ez da ezer esaten, Aurrehistoriara mugatzen da bakarrik.



4. Figura: Estratigrafiaren inguruko informazioa ematen duen kartela. Iturria: Nik ateratako argazkia

Bilboko Arkeologi Museoaren kasuan, gizakia da erakusketaren elementu nagusia. Hori ibilbidean zehar somatzen da, gizakia panel ezberdinetan irudikatua agertzen delako. Betiere, Bizkaiko biztanle moduan tratatuak dira. Euskal Museora sartzean, bestean ez bezala, liburuxka bat eman zidaten. Bertan, museoaren antolaketa eta pieza esanguratsuak agertzen ziren. Museoak bi gela dauzka bi solairutan banatuak. Bisita bigarren solairutik hasten da eta gela horrek Historiaurrea, Brontze Aroa eta Erromatar garaia biltzen ditu. Gela horretako atak zabaltzerakoan, aurrez aurre daukazun pantaila pizten da, bideo eta panel ezberdinak agertuaraziz. Honekin, bisitariak museoan sartu bezain laster baliabide didaktikoekin harremanatzea lortzen du eta hasieratik bisitaren osagarri bihurtzera eramaten ditu. Lehen solairua, Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Kultura-Ondarearen kudeaketan zentratzen den atal batean banatzen da.

Museo honetan, baliabide didaktikoak eraginkorragoak direla esango nuke. Hau da, BIBAT museoarekin alderatuz, museo honek teknologia berrien integrazio handiagoa egin du. Alde batetik, baliabide teknologikoen kopurua handiagoa da. Beste aldetik, baliabide horiek publikoarekiko interakzio handiagoa lortzeko prestatuak daude. Izan ere, pantaila ezberdinak daude eta bisitariak berak nahi duen tokian sakatu dezake. Horrela, gai zehatz baten galdera ezberdinen erantzunak jaso ditzazke. Nire ustez baliabide hau oso egokia da jendearen arreta lortzeko. Izan ere, bisitari askok ez dute museoan erakusten diren gauza guztien gaineko interesa eta museoaren bisita haientzat entretenigarriagoa izan daiteke modu honetan.




5. Figura: Bilboko Arkeologi Museoako baliabide didakto bat. Bertan gorpuen azterketari buruzko informazioa ematen da, lau galdera plantetauz. Iturria: Nik ateratako argazkia.

Halaber, BIBAT museoan bezala arkeologiaren oinarrizko kontzeptuen azalpena burutzen da baliabide didaktikoen bitartez. Kasu honetan garatuagoak daude. Bisitan ikusi nituen baliabideen artean, bi baliabide nabarmenduko nituzke; estratigrafia azaltzeko ikus-entzuna eta 3 dimentsioko betaurrekoak. Betaurreko horien bidez birtualki kobazulo batean indusketa bat egiten zaudela sentitzeko aukera duzu. Gainera, betaurrekorik gabe ikusteko aukera izan nuen alboko pantaila batean. Larrialdi egoerarekin betaurrekoak erabiltzerik ez zegoelako.

Estatigrafiaren inguruko ikus-entzuna oso interesgarria iruditu zitzaidan eta jakintza-maila baxua daukan jendearentzako ulert erraza zela uste dut. Bideoan estratigrafiaren sorrera modu ulergarri batean azaltzen da garai bakoitzeko maila estatigrafikoari kolore ezberdina emanez. Gainera, estratigrafiaren sorrera eta zergatiak azaltzen dituzte.

Errealitate birtualarena baliabide oso egokia iruditu zitzaidan bai ume zein helduentzako. Batez ere, ume eta gazteen arreta jasotzeko aukera gehiago daude oso baliabide egokia delako haientzat jolas bat delako. Errealitate birtualaren espazioa banatua zegoen, Historiaurrea, Brontze Aroa eta Erromatar garaiko gelatik atera baino lehen. Errealitate birtualarekin kobazulo bat induskatzen duen arkeologo bat izateko aukera daukazu. Baliabide horrekin arkeologia lana eta metodologiaren berri ematen da eta jendea horren parte hartzaile bihurtzen da.




6. Figura: Goiko irudian errealitate birtualeko betaurrekoak agertzen dira. Beheko irudian betaurreko horiekin ikusten zena irudikatzen zuen pantaila. Argazkian kobazulora sartzeko eskailerak agertzen dira.

Iturria: Nik ateratako argazkia.

Eremua oso atsegina zen eta errealitate birtualeko betaurrekoez gain, Altxerri kobazuloan, historiaurreko margoen aurkikuntza azaltzen zuen dokumentala ikusteko aukera zegoen. Dokumentala oso erakargarria iruditu zitzaidan aurkikuntza egin zuten arkeologoa eta espeleologoa protagonistak zirelako. Dokumental horren ondoko pantailan beste dokumental bat ikusteko aukera zegoen, arkeologoen elkarriketen bitartez osatzen zena. Dokumental horiek, arkeologiaren ikuspegi zabala emateaz gain, gaur egungo gizartearekin duen konpromezua azpimarratzeko helburua dute.

Bigarren gelan baliabide didaktiko asko aurkitzen ditugu ere. Alde batetik, sartzekoan Erdi Aroko latinezko abesti bat entzuten da eta alboan abestiaren esanahia eta azalpena ikusten dugu. Hau, baliabide berezia eta eraginkortasun handiakoa iruditu zitzaidan eta horregatik analisi honetan txertatzea erabaki dut. Gela honetan, herri batzuen berreraikitzea maketa moduan erakusten da eta askotan panel informatiboen bitartez gaur egun nola dauden erakusten da. Horrela, erakusten duzunari benetako egunerokotasuna ematen diozu eta aldi berean jendeak hobeto ulertzen du.


Hiribilduen atalean jarraituz, hiribilduen sorrera azaltzen duen Bizkaiko mapa didaktikoa dago. Mapan garai ezberdinak agertzen dira eta denbora aurrera egin ahala, hirigune ezberdinak sortzen edo handitzen direla antzeman daiteke. Maparen ondoan, azalpen labur bat agertzen da eta hiribilduen sorreraz gain merkataritza jarduerak eta burdinolak agertzen dira. Horri esker, azalpena osatua dagoela uste dut.



7. Figura: Bizkaiko hiribilduen sorrera aurkezten duen pantaila didaktikoa. Iturria: Nik ateratako argazkia.



Oso adierazgarria da kasu honetan, egungo paisari eskeinitako baliabide didaktikoa. Hau da, Landetxo Goikoa baserria berreraikitze egindako lanak erakusten dizkizun pantailan eskura daukazu. Horrekin, arkeologia lanen garrantzia eta Euskal Kulturaren baserriek duten balioa nabarmentzeko aukera ona dela uste dut. Halaber, jendearen interesa eta arreta aregotuko duelako.



8. Figura: Baserriaren berreraikitze prozesuan erabilitako metodoa erakusten du.

Iturria: Nik ateratako argazkia

Azkenik, Kultura-Ondarearen kudeaketari eskeinitako atala aipatu beharra dago Arabako museoan ez dagoena. Oso gomendarria eta beharrezkoa iruditu zait eta nire lanean aztertu dudanez ere, txertatzea erabaki dut. Atal hau museoan txertatzea, jendea Ondarearen babesa, kontserbazioa eta hedapenaren garrantziaz kontzientziatzeko helburua dauka. Horregatik, museo honetan bisita gidatu berezi bat aurkitu daiteke. Hain zuzen ere, piezaz piezako bisita izena dauka eta biltegien dauden objektu ezberdinen bitartez Bizkaiko historia kontatzeko erabiltzen dute, modu pertsonalago batean.

Bi lurralde-museo hauetan aula didaktikoak daudela azpimarratu behar da. Bertan, hitzaldi hezigarriak eta tailer ezberdinak garatzen dira. Ekintza hauek oso garrantzitsuak dira eta publiko motaren arabera aldakorrak direnez oso eraginkorrak dira. Batetik, arkeologiaren berri emateko balio dute; arkeologiaren gaur egungo egoeraz hitz egiteko edota aurkikuntza eta martxan dauden indusketen berri emateko. Horrela,

arkeologiaaren metodologia eta indusketa prozesuan jendearen parte hartze pasiboa sustatzen da, gizarteak indusketa erabakietan parte hartzeko helburua ez dutelako. Baina behintzat sustatu egiten da. Bestetik, modu sakon batean museoeko edukia edota museoan erakusgai ez dauden piezak erakusteko espazioa izan daiteke. Espazio hau eraikitzeko ezinbestekoa iruditzen zait museo batean. Honi esker, jendearekin informazioa partekatzea errazagoa delako.

Museoen analisi honetan emakumearen irudikapenaz mintzatzea oso komenigarria iruditu zait. Izan ere, bi museoetan diskurtso historikoa sortzeko orduan, emakumearen irudikapena eskasa dela antzeman dut. Bilboko Arkeologi Museoan emakumearen irudikapena BIBAT museoan baino handiagoa da. Irudikapenak dituzten panel kopurua handiagoa delako izan daiteke ere. Honen harira, Querol eta Hornos autoreek Espainiako 5 museoetan emakumearen irudikapena aztertu zutela aipatu behar da, museo horietako bat Bilbokoa zelako. Bertan, beste museoekin alderatuta eta museo honen tamainari erreperatuta, kopurua handia dela defendatzen dute (Querol eta Hornos, 2011).

Atal honekin bukatzeko, esan beharra dago jakintza-maila altuko bisitaria izanda ez dudala arazorik izan museoaren edukiak ulertzeko eta nire jakintzan sakontzeko aukera izan dut. Museoeko bisitak ordea, jakintza maila baxua, arrunta, interes-maila altua eta baxuko jendeak egiten ditu ere. Horientzako, dibulgazioa ziurtatzeko mekanismoak ezarri dira baina ez da nahikoa jendearen arreta eta interesa sortzeko. Batez ere, gazteen artean. Aztertu dugun moduan, Bilboko Arkeologi Museoak baliabide eraginkorrenak eta elkarri eragiten dietenak garatu ditu. Horrela, museora joaten den pertsona erakusketaren parte hartzaile aktiboa bihurtzen da. BIBAT museoak, ordea, berritze ikus-entzunezkoak dauzka eta ez du bisitariarik harreman interaktibo hori hainbeste garatzen. Bisitariarikiko modu pasiboago batean eskuratzen du informazioa, hainbeste inplikatzeko ez delarik edo ez hain erakargarria suertatu ahal zaiolarik.

Hori lortzeko bisita gidatuak daude, lehen esan bezala. Nire ustez, bisita mota hauekin museoaren bisita ulergarriagoa eta interesgarriagoa izan daiteke. Gainera, hezkuntza alorrean irteerak antolatzen dituzte eta horrela bisita baten bitartez behintzat, ume eta gazteei Ondareari buruzko informazioa partekatzeko aukera bikaina daukate. Horrela, hezkuntza munduan Ondarearen ideia eta iraganaren garrantzia lantzeko modu

praktikoan egin daiteke. Izan ere, eskoletan ez da ugaria Ondarea eta arkeologiaren inguruko ikasgaiak egotea. Modu honetan, ikasleek haien jakintza eraikitzen joatea lortu daiteke, ohikoa den transmisio eredia alde batera utziz eta ikasketa prozesu horretan parte- hartzaile bihurtuz.

## **7. JENDEAREN PERTZEPZIOA INKESTEN BITARTEZ**

Azaldu dugun arkeologia eta gizartearen arteko komunikazioa ikertzeko eta gizarteak daukan interes maila, zertan daukan jakin-mina eta zeri ematen dion lehentasuna argitzeko inkesta bat burutu dut historian, artearen historian edota arkeologian adituak ez diren pertsonen artean. Bibliografikoki ikertutako materiala eta inkesta honekin ondorio osatuagoak garatzeko asmoa daukadalako. Jakina, burututako inkestak ez du balio estatistikorik, baina datu kualitatiboak lortzeko baliogarria izan da, eta beraz, gai honi lehen hurbilketa bat egiteko.

Inkestan burututako galderak 6 ziren<sup>12</sup>; zer da arkeologia zuretzat? eta zer da arkeologo bat?; ondare arkeologikoan interesa daukazu?; museo arkeologikorik bisitatu duzu? eta erantzuna baiezkoa bazen izenak esan behar zituzten; indusketa arkeologikorik ezagutzen duzu? eta bai esatean izenak esan behar zituzten eta arkeologia eta gizartearen arteko harremana hurbila dela uste duzu? eta erantzuna ezezkoa bazen hori hobetzeko proposamenak esateko aukera zeukaten.

Horretarako 32 pertsona<sup>13</sup> elkarrizketatu genituen, 18-70 urte bitartekoak, bi multzotan banatu ditugunak; 18-30 bitartekoak eta 40-70 bitartekoak, adinaren arabera aldaketa handiak ikusten direlako, batez ere, arkeologiari buruzko jakintza-maila altuagoa delako helduen artean. Hau da, adinen arteko ezberdinak agertu dira; arkeologia ezagutza mailari dagokionez, kontzeptuen barneraketari dagokionez, interes maila eta egindako bisita kopuruari dagokionez, esaterako.

Lehenengo galderaren erantzunekin hasiz, arkeologiaren definizioa ematerakoan, disziplina zientifiko gisa kontsideratu du gehiengoak, zientzia hitza gehien errepikatu

---

<sup>12</sup> Ikusi 2. eranskina.

<sup>13</sup>Inkesta honetan 32 parte hartzaileen artean, 18 heldu (40-70 urte bitartekoak) eta 14 gazte (18-30 bitarte) daude. Horrela, adinaren araberrako interes maila, ezagutza maila, kontzeptuen barneraketa eta arkeologiarekin daukan harremana ezberdina dela ikusiko dugu.

dena izanik (%34,3). Honek, arkeologia disziplina zientifiko bat bezala ikusten dela adierazten du. Gizarteari erreferentzia egiteko, arbaso edo zibilizazio hitza (%21) baita erabilia izan da definitzeko orduan. Honen atzetik ondare hitza azaldu da (%18,7), eta Ondarearen barruan, fosil, hezurak eta objektuak, izendatuak izan dira. Inkestatuen artean, iragana errepikatu den erantzuna izan da, arkeologiak iragana aztertzen duela esanez (%15). Azkenik, historia (%6,25) eta ezagutza (%3,1) hitzak erabili dira arkeologia zer den definitzeko.

Arkeologo bat nola definituko zuten galderan, gehiengoak ikasi, ikertu eta arkitzen duen pertsona gisa identifikatu dute (%71,8). Hala ere horietatik, %37,5k ikasi, ikertu eta aurkitu aditzekin osatu du pertsona izena; “persona que estudia” esaterako. Askok arkeologia zuzentzen duen pertsona edota indusketa bateko zuzendari gisa deskribatu dute. Inkestatuen portzentai berdinarekin (%6,25) ikertzaile, zientifikoa eta bilatzaile hitzak erabili dituzte arkeologo bat definitzeko orduan, izaera zientifikoagoa emanez.


Gainera, arkeologoaren aspektuaz galdetuak izan direnean askok zenbait topikorekin erantzun dute; telebistan edota zinean agertu ohi diren *Indiana Jones* bezalako ereduak aipatuz. Hau da, pelikuletan bezala ikusten dute arkeologoa errealitatean, altxor bila dabilen abenturazale eta zale bat bezala, indusketa eremura mugatzen dena.

Izan ere, autoreek azpimarratzen duten bezala, zinean arkeologiaren irudi erreala ez da ematen baina gizarteak ez dauka gaitasunik (kontzeptuak menperatzen ez dituelako) arkeologiaren benetako metodologia eta egungo metodologia zein den jakin edo salatze<sup>14</sup> (Carvajal, Álvarez, Soto eta Tejerizo, 2011: 8).

Ondare arkeologiko edo kulturean Interesa neurtzeko galderan, %84,3k baiezkoa erantzun dute eta kontrari, %15,6k ezezkoa eman dute. Horrela, interesa gizartean handia dela ikus dezakegu. Hala ere, adinak garrantzia handia hartzen du galdera honetan, ezezkoa eman dutenak 18-30 bitartekoak zirelako. Hala ere, 18-30 urteko %20ak Ondarearen garrantzia eta honetan daukaten jakin-mina azaldu dute lurraldekotasun eta identitatearekin lotuz.

---

<sup>14</sup> Hall, 2004tik ateratako ideia




9. Figura: Jendearen interes-maila neurtzen du. Iturria: Nik egindakoa.

Museo arkeologikorik bisitatu duten galderan, 21 pertsonen (%65,6) museo arkeologiko bat bisitatu dutela erantzun dute. Horietatik, gazteak 3 besterik ez ziren. Museo arkeologikorik bisitatu dutenek %34,3 osatzen dute. Museoen artean museo ezberdinak aurkitzen ditugu, nazionalak edota lokalak. Esaterako, Museo Nazionale (MAN) edo Nafarroakoa Museoa. Museo arkeologikora joateko arrazoiak eman dituztenen artean, (%47,6) zaletasuna, inguruan dagoen eremua izatea eta jakinguria aipatu dituzte. Gazteen artean, ikastola edo gurasoekin egindako bidai batean joan direla adierazi dute.

Indusketa arkeologikoa aipatzeko eskatu diedanean, Euskal Herrian edota munduan zehar daudenen artean, %75a kapaza izan da bat edo batzuk izendatzeko, horien artean guztiak helduak izan dira 6 gazterekin batera. Horien artean; Andelos, Altamira, Atapuerca eta Ponpeia izan dira errepikatuenak. Kontran; %25a ez da kapaza izan indusketa bat izendatzeko. Hala ere, erantzunetan arkeologiaren aztarnategi mediatiko eta famatuenak aipatuak izan dira eta gehiengoetan horien errepikapena burutu da. Hau da, gehiengoari, bere lurraldean dagoen aztarnategi bat baino Ponpeia ezagunagoa egiten zaio.

Azkenik, arkeologia eta gizartearen harremana hurbila dela erantzun dutenean, %15,6k harremana hurbila dela erantzun dute. Kontran, %84,3k urruna dela erantzun dute. Galdera horretan urruna zela esaten bazuten, hurbiltzeko tresna edo baliabiderik zeuden galdetu nien. Galdera honetan, erantzunak ezberdinak izan ziren eta baliabide bat baino gehiago aipatu ziren erantzun berdinean, beraz portzentaiak ateratzeko konplexuagoa izan da.



10. Figura: Baliabide ezberdinen kopurua zenbatzen duen grafikoa. Iturria: Nik egindakoa.

Hala ere, emaitza errepikatuenak aipatuko ditugu, goian txertatu dudan grafikoarekin lagunduta. Baliabideen harira, 3 pertonek ez dute baliabiderik aipatzen jakin. Beste guztien artean; hiru multzo egin ditzakegu. Alde batetik, aurkikuntzak areagotzera bideratzen direnak ikerketen aregotzea edota ekonomikoki laguntza gehiago ematea erantzun dutenak.

Izan ere, arkeologia diru publikoaren bitartez sustatzeko beharra aldarrikatzen dute eta kudeaketa egokia egitearen alde agertzen dira. Finantziario horren barruan, kudeaketa egokia, emaitza eta Ondarearen dibulgazioa eraginkorra egitea erantzuna izan daitekeela pentsatzen dute.

Beste alde batetik, komunikazioekin zerikusia daukaten erantzunak daude. Horien artean, komunikazioa bera hobetzea eskatzen da, publizitatearen areagotzea (aurkikuntza berriak eta daudenak), informazio gehiago jasotzea eta gune arkeologikoak egokitu (hobeto seinalatuak egotea, panel informatikoak txertatzea..) eta ekintza didaktikoak aurrera eramatea erantzun dute. Azken erantzun honetan; bisita gidatuak, hitzaldiak eta parke arkeologikoen bisita aipatu dira; jendea indusketa arkeologikoaren parte bilakatzea aipatu da ere.

Halaber, indusketa arkeologikoez gain, museoak aipatzen dira arkeologia gizartera gerturatzeko tresna gisa. Gehien bat, haien komunikatzeko eran zentratzen dira, dibulgazio baliabide ezberdinak aipatuz. Gazteenak; eduki praktiko eta didaktikoen erabilera areagotzeko eskatzen dute eta sare sozialetan promozio handiagoa egitea zein bisita gidatu dinamikoak egitea gustatuko litzaieke.

Horri buruzko ideia Lacalle autorearen testuan antzeman dezakegu museoen berrikuntzetan horrelako baliabide didaktikoak jartzeko ahalegina egiten ari direla aipatzean. Haren ustez, honekin Ondareaz gain, haren testuinguruak garrantzia hartuko du erraztasuna izanez Ondarea ulertzeko (Lacalle, 2010: 33).

Azkenik, erantzun batzuk hezkuntzarekin zerikusia daukate. Erantzun hauetan hezkuntza formalean txikitatik arkeologia eta Ondarearen inguruko informazioa eta garrantzia izatea beharrezkoa direla aipatzen dute hobetzeko baliabide moduan. Hala ere, arkeologiak hezkuntzan hartzen duen garrantzia txikia da egun. Hau da, erantzun multzo honek Ondarearen garrantzia eta balioaren kontzientzia izateko hezkuntza (formala eta txikitatik jasotakoa) beharrezkoa dela defendatzen du.

### **7.1. Inkesten emaitzen interpretazioa/ondorioak**

Aurretik azaldutako inkestaren datuak interpretatu ditut. Orokorrean, inkesta honen arabera gizartearen aldetik interes-maila altua dagoela ikusten da. Gainera, jakin-min horri esker museoen bisita ugaria biltzeko aukera izan dut, jende helduaren artean, batez ere. Horretaz gain, indusketa arkeologikoen ezagutza maila altuak, zonaldeko indusketak badira ere, harritu eta poztu egin nau aldi berean. Galdera hauen erantzunek gizarteak Ondarearen balioa ezagutzen duela antzematen dute. Horrez gain, Ondarearen informazioa jasotzea interesa daukatela ere.

Hala ere, azken galderaren erantzun kopuru gehiena arkeologia eta gizartearen arteko harremana urruna dela izan da, argudio ezberdinak emanez. Honek aurreko erantzunetan interpretatu daitekeenarekin ez dator bat. Izan ere, arkeologia eta Ondarearen interes altua izanda, arkeologia urrun sentitzea sakontasun handia daukan arazora eramaten gaitu. Arazo hori lan honetan egindako azterketa eta analisi ezberdinen bitartez lantzea zen helburua eta arazo horri konponbide bat emateko planteamenduak aukertzea.

Orokorrean, urruntasun sentimendu horren arrazoi nagusia ez-jakintasuna da. Izan ere, inkestaren parte hartzaileak arkeologia eta arkeologoaren perzepzioaren inguruan galdetuak izan direnean, kontzeptuen sakontasun falta larria somatu dut. Datuen azalpenean esan bezala, gutxi batzuk arkeologoa zientzialari moduan hartu dute eta gehiengoak iraganarekin lotu duen arren ez du arkeologiaren lanaren osotasuna ezagutzen.

Hori, arkeologia zein gizartearen arazoa izan da. Lanaren ondorioetan sakonduko dudana bezala, gizarteak arkeologiaren inguruan dituen aurreiritziak aldatzeko hezkuntzaren laguntza ezinbestekoa da. Oro har, jende gaztearen artean, arkeologiak burutzen duen lana ez da argi geratzen eta indusketa arkeologikoetara mugatzen da. Horrek, arkeologiak gizartearekin sortu nahi duen komunikazioa zailtzen du, arkeologiak helarazi nahi dituen kontzeptu askoren jakintza-maila oso baxua delako.

Horretaz gain, gazteen artean batez ere, ez dago arkeologia lanen, Ondarea eta iraganaren kontzientzia zabaldua. Gainera, kontzeptuak barneratuak ez izatean zailagoa da arkeologiak komunikatzen duen horren esanahia ulertzea. Esanahia ez ulertzean, orokorrean, aspergarrizat hartzen da eta interes hori galtzen doa. Beraz, hezkuntza munduan, kontzientziazio horren alde egiteko ikasgai edo ekintza ezberdinak antolatzea beharrezkoa da. Kontzeptuak eta kontzientzia hori garatzean, arkeologia eta Ondarearen mundua, interesgarriagoa bihurtzeko erraztasunak daudelako. Gainera, gizarte arkeologiak dibulgazioaren bitartez helarazi nahi duen hori ulertzeko gaitasun handiagoak lortzen joango zen.

Arkeologia eta gizartearen arteko komunikazio okerra azken galderaren erantzunekin antzeman daiteke. Galdera horretan, arkeologia gizartera hurbiltzeko egin beharrekoa planteatzen dute. Hala ere, lortu ditudan erantzun gehienak arkeologiak gaur egun burutzen dituen ekintzak izan dira. Hau da, adibidez, museoen promozio handiagoa egitea edo arkeologiak sare sozialak erabiltzea aipatzen dira. Hori, gaur egun arkeologiak bere emaitzak zabaltzeko erabiltzen duen teknika da. Hala ere, jendea ez da jabetzen arkeologiaren gaineko aurreiritzi handiak dituelako.

Azkenik, hausnarketa hau plazaratu nahi dut lana borobiltzeko. Izan ere, arkeologia gaur egungo gizarte eta publikora egokitu dela argi geratu da. Azken mende hauetan,



arkeologiak bere metodoen eraldaketa bultzatu du, gizartera hurbiltzeko saiakera bezala. Hala ere, hori nahiko izan ez dela ikusi dugu. Baina, arkeologiak metodo berriak bultzatu edo mekanismoen eraginkortasunean hobetzea lortzen badu, publikoaren arreta lortuko du edo gizarteak arkeologiaren inguruan dituen aurreiritziekin jarraituko du?

## **8. ONDORIOAK**

Lan honetan jorratu ditudan gaiak aztertu ondoren, gaur egungo gizartea eta arkeologiaren arteko harremanaren inguruan egindako hausnarketak plazaratuko ditut. Gai hau azken hamarkadetan ikertua izan da eta Arkeologia Publikoa bezalako joerek arkeologiaren barruan geroz eta indar gehiago hartu dute. Euskal Herriko kasuan, aurrera pausu handiak ematen ari dira norabide onerantz doazenak. Espainiako kasuan, arlo teorikoan, Almansa autorea nabarmendu da gaiaren inguruko hausnarketa sakona egin baitu. Hala ere, lan bibliografikoak landu ondoren (Almansa, 2011; Zapatero, 2012; Quiros, 2018), oraindik joera honek biltzen dituen kontzeptuak eta definizio osoa gauzatzea zaila da, joeren arteko mugak argiak ez direlako.

Beraz, lehen erronka modu teoriko batean, arkeologia eta gaur egungo gizartearen arteko hausnarketa sakonagoa egitea planteatzen dut. Hausnarketa horrekin batera, jendeak arkeologia eta Ondarearen inguruan daukan pertzepzioa eta benetako interesa ikertzea ezinbestekoa izan beharko da. Horrela, publikoa aztertu eta haren lehentasunak ezagututa, ekimenak eta gizartearenganako harremana hurbiltzeko eraginkortasuna daukaten mekanismoak eta baliabideak erabili daitezkelako.

Museoetan egindako analisisian zentratzen bagara, argi dago gaur egungo museoak baliabide didaktiko berriekin ekipatzen direla eta museo territorialek eremu horretako jendearen interesa bereganatzeko erraztasuna dutela. Museoen bisitak jende helduaren artean ugariagoak direla antzeman daiteke, zaletasunak, interesak eta jakin-minak bultzatuta. Ume eta gazteak normalean eskola edo familiarekin bisitatzen dituzte museoak eta ez dira haien kabuz joaten.

Orduan, problematika bat aurkezten da, museoa baliabide didaktikoz beteta egonda orokorrean gazte eta umeen artean interesa nahiko baxua delako. Jakina, ezin ditugu gazteak behartu museoak bisitatzeko eta problematikaren sakontasunaz jabetu behar

gara. Izan ere, museo bat baliabide teknologiko eta didaktikoekin ekipatzea nahikoa ez dela argi geratu da. Lan honetan aztertu den bezala, baliabideekin lortu nahi den eraginkortasun maila beti ez da espero bezain altua.

Lan hau egin ondoren aztertutakoan oinarrituz, problematika eta aldi berean, irtenbidea hezkuntzan aurkitzen dut. Horregatik, hezkuntzan Ondarea eta arkeologian fromakuntza egokia eskaintzea bigarren erronka bezala aurkezten dut. Hau da, gizartea hezitzea oso garrantzitsua dela argi dago eta heziketa horretan Kultura-Ondarea eta arkeologiaren inguruko kontzepturik ez sartzeara arazo bat bihurtzen da arkeologiak gizartearengana hurbilketa gauzatu nahi duenean. Izan ere, jendeak ez du Ondarearen garrantziaren kontzientzia hain barneratua, batez ere, jende gaztearen artean ikusten delarik. Gainera, pertsona askok iragana eta historiaren garrantziaz ez dira jabetzen, ez dute iragana behar bezala baloratzen eta etorkizunari garrantzia handiagoa ematen diote. Kontuan hartu gabe etorkizuna sortzeko iragana behar dela.

Beraz, hezkuntza-sisteman Ondarearen inguruko gogoeta planteatu beharra dago eta hezkuntzak, Ondarearen garrantzia eta memoria kolektiboa sortzeko garrantziaren ideiekin hezitzeko ahaleginak egin beharko lituzke. Gaur egungo gizartean daukan eragina aipatu beharko litzateke eta Ondarearen kontzeptua egunerokotasuna daukan elementu bat bezala aurkeztu beharko zen. Horrela, jendearen interesa handitu egingo litzateke behin jakinda gaur egungo gizartean Ondareak daukan eragina. Izan ere, inork ez die Ondarearen garrantziaz jabetu, kontzientziatu eta horrek gaur egungo gizartean eragina dauka.

Irizpide hauek jarraituz gero, ondorioztatu daiteke gizartea eta arkeologiaren arteko harremana urruna dela, gehien bat ez jakintasunak bultzatuta. Hala eta guztiz ere, aurreko hamarkada batzuetan baino harreman hurbilagoa sortu da. Gutxinaka gizartea eta arkeologiaren harremana hurbilduz doa, bide luzea geratzen den arren, ekimenak eta parte hartze aktiboa eta elkar eraginean oinarritzen den komunikazioa bultzatzen baita.

## 9. BIBLIOGRAFIA

- Almansa, J. (2011). Arqueología para todos los públicos. hacia una definición de la arqueología pública «a la española» *Arqueoweb*, vol 13, (1).
- Almansa, J.; del Mazo, B. (2010): Tesoros, Política y otros demonios. La arqueología madrileña en la prensa. *Comunicación presentada en las VI Jornadas de Patrimonio Arqueológico de la Comunidad de Madrid*.
- Almansa, J. (2018). New paths for the future of public archaeology?. *Monográfico*, 28. 197-209.
- Axpe, A. P.; Martínez, R. M. (2006). La didáctica del museo y del yacimiento arqueológico. *Marq, arqueología y museos*, (1), 169-181.
- Azpeitia Santander, A. (2020). La nueva ley 6/2019 de patrimonio cultural vasco. Algunas reflexiones sobre su alcance y contenidos. *Revista General de Derecho Administrativo*, 54, 2-10.
- Ballart Hernández, J. (1996). De objeto a objeto de museo: la construcción de significados, *Construcciones y usos del pasado patrimonio arqueológico, territorio y museo jornadas de debate del museu de prehistòria de valència*, Museu de Prehistòria de València, 99-115.
- Carvajal Castro, Á; Hernando Álvarez, C; Soto García, M.R; Tejerizo García, C. (2011). El síndrome de Indiana Jones. La imagen social del arqueólogo. *Estrat crític: revista d'arqueologia*, 5 (12), 38-49.
- Castellano Garrido, C. (2010). El museo local como herramienta de difusión y didáctica del patrimonio arqueológico. Algunas reflexiones en torno al caso español. *Posgrado y Sociedad Revista Electrónica del Sistema de Estudios de Posgrado*, 10 (2), 42-54.

- Delgado Anés, L. (2017). *Gestión, comunicación y participación social en los paisajes culturales de andalucía. el caso del proyecto memola*. Ed: Universidad de Granada. [Tesis doctoral]
  
- González Ruibal, A eta Ayán Vila, X. (2018). *Compartir el pasado: Arqueología: una introducción al estudio de la materialidad del pasado*. Ed: Alianza, Madrid.
  
- Querol, M. A. (2010). *Manual de Gestión del Patrimonio Cultural*, Ed: Akal, Madrid.
  
- Querol, M.A eta Hornos, F (2011). La representación de las mujeres en los modernos museos arqueológicos: estudio de cinco casos. *Revista Atlántica-Mediterránea*, 13. 135-165.
  
- Quiros Castillo, J.A. (2015). *La materialidad de la historia: La arqueología en los inicios del siglo XXI*. Ed: Akal.Madrid.
  
- Ramirez Lacalle, E. (2011). “Los tópicos creados a través de las relaciones entre la arqueología y la sociedad”; *Estrat Crític: revista d’arqueologia*, 3. 30-37.
  
- Ruiz Zapatero, G. (2012). Presencia social de la arqueología y percepción pública del pasado. *Museu de Prehistòria de València*, 31. 31-73.
  
- Ruiz Zapatero, G. (2016). Presente y futuro de la Arqueología en España. Luces sombras y desafíos. *Del registro estratigráfico a la sociedad del conocimiento: el patrimonio arqueológico como agente de desarrollo sostenible, I*. Ed: Universidad de Cordoba, 53-77.

## 10. ERANSKINAK

### 1. ERANSKINA. Museoa bisitatzeko fitxa.

<b>MUSEOAK BISITATZEKO FITXA TEKNIKOA</b>	
1. Baliabide didaktikoen kopurua eta nolakotasuna ikustea	
2. Ikus-entzunezko kopurua behatu eta haien eraginkortasuna aztertzea	
3. Espazioaren antolaketa (espazio irekiak, itxiak, ilunak, argiak)	
4. Erakusten diren objektuen deskribapena eta panel informatiboak behatzea	
5. Bisita gidatuak egiteko aukera dagoen galdetzea	
6. Emakumearen presentzia eta ikuspegia baloratzea	
7. Modu kritiko batean museoaren eraginkortasuna baloratzea	

### 2. ERANSKINA. Jendearen perzepzioaz jabetzeko inkestaren galdetegia.

<b>Jendearen perzepzioaz jabetzeko fitxa tekniko</b>
1. Galdera: Zer da arkeologia zuretzat? // ¿Que es la arqueología para ti?
2. Galdera: Eta arkeologo bat? // ¿Y un arqueólogo?
3. Galdera: Ondare Arkeologikoan interesa daukazu? // ¿Tienes interés en el patrimonio arqueológico?
4. Galdera: Museo Arkeologikorik bisitatu duzu? Erantzuna baiezkoa bada, esan zein edo zeintzuk. // ¿Has visitado algún museo arqueológico? Si tu respuesta es afirmativa, dime cuál o cuales.
5. Galdera: Indusketa arkeologikorik ezagutzen duzu? Bai bada, zein edo zeintzuk. // ¿Conoces algún yacimiento arqueológico? Si tu respuesta es afirmativa, dime cuál o cuales.
6. Galdera: Zure ustez, arkeologia eta gizartearen arteko harremana hurbila da? Zure erantzuna ezetz bada, hori hobetzeko proposamenik daukazu? // En tu opinión, la relación

entre la arqueología y sociedad es cercana? Si tu respuesta es no, tienes alguna propuesta para mejorar esa relación?